

## IKUSPEGI OROKORRA

zenbait lan-nitxotan, emakumezko langileen eskariak gora egin du

### LAN ERREPRODUKTIBOAREN

nazioarteko banaketa bat dago.



Etxeko lanak



Zaintza-lanak

Europar, emakumezko migratzaileak egotea estu loturik dago kontinenteko migrazioen mapan izandako aldaketekin




Bertako emakumeak lan-merkatuan sartu izana



Familia eta lana bateratzeko **politika publikorik eza**



Emakume atzerritarak hartzen dira hemen lan egiteko



Iparraldera langileak bidaltzeari utzi diote Espainiak, Portugalek, Italiak eta Greziak

Sorterrian, emakumeek pairatzen dituzte krisialdien eta pobrezia-ondorioak gogorren, eta haien izaten dutenez familiaren iraupenari eusteko ardura, migratzera behartuta egoten dira.

Horrelaxe sortzen dira **hegoaldeko iparralderanzko migrazio-fluxuak**, eta migratzaileak ekonomia informala-aren parte bihurtzen direnez, garrantzi handiko baliabide ugari ezkutuan geratzen dira.

**Zaintza-sare globalak:** emakume migratzaileek bertakoak ordezkatzeko dituzte, eta haien sorterrian, era berean, haien amonek, ahizpek edo alabek ordezkatzeko dituzte emakume migratzaile horiek, eta horrela hurrenez hurren



## MIGRAZIO-FLUXUEN FEMINIZAZIOA

bertako emakumeek atzerritik datozenei **zama erreproduktiboak transferitzearen** ondorioz gertatzen da.



\* **Zergatik esplotazioa?**

Etxeko lanei eta zaintza-lanei ez zaielako inolako baliorik aitortzen, eta, sektore horretan, prekaritate-tasak itzelak direlako

Mendebaldeko gizarteetan, hiru alderdi daude inondik inora birnegoziatzen ez direnak:



Erantzukizun **ekonomikoak**



Etxearen gaineko erantzukizunak



Familiaren eta **estatuaren** arteko harremanak

eta, horren eraginez, **egitura patriarkalak** etengabe erreproduzitzen dira.



Gurera migratzen duten emakumeek, berdin da bikotekidea duten edo ez, amarekin, ahizpekin edo alaba nagusiarekin utzi behar izaten dituzte seme-alabak, eta egoera petral horretan ohitu behar izaten dute ama izatera: bakarrik eta urruti daudela, alegia. **Emakume horiek eta haien familiek mugen artean berreraiki eta negoziatu behar izaten dituzte afektuak.**



Bai sorterriko eta bai harrera-herriko diskurtso sozial eta mediatiko guztiek, ordea, **emakumeak estigmatizatzen dituzte, seme-alabak uzteagatik** eta emakume izate hutsagatik ustez dagokien rola ez betetzeagatik: **“ama onak”** ez izateagatik, alegia.

Amatasuna natural eta biologikotzat jotzen da, eta, horren ondorioz, ez gara konturatzen **amatasuna sozial eta historikoki eraikitako zerbait dela batez ere**. Bitxia bada ere, ez dugu uste izaten gizonezko migratzaileek seme-alabak **abandonatzen** dituztenik; aitzitik, halakoak heroi sakrifikatutzat jo ohi ditugu.